# Aretxagazeta

Aretxabaleta • 2000ko azaroaren 9a • 201. zka.



# Igogailu beharrean

Iturririk iturri: Asier Cobos • Iritzia: Mirian Txintxurreta • Kirolak: Joseba eta Pedro Mari



Pintxoak
Otartekoak
Hanburgesak
Patata brabak

Zatoz!

Lauxitta taberna

ORDUTEGIA: 10:00etatik 22:00etara Lauxitta kalea, 4 20550 ARETXABALETA ☎ 943 79 29 36




Parkak, alkondarak, frakak eta gabardinak.

50 urte Atxabalta jazten…

ASENSIO

# Realeko entrenadore aldaketiak konponduko dau taldien egoeria? Ze pentsetan jatzu kanpoko jokalarixek ekartie?



## Eugenio Lacalle

Entrenadorien kulpia bakarrik ez da hori. Jokalarixek golik ez badaue sartzen, ezin da ezebe ein. Perikorekin taldiak hobera eingo dauela espero dot.



## Pedro Jose Zuazabeitia

Ez dot uste entrenadore aldaketiak dana konponduko dauenik, jokalarixen kulpia be bada.
Bertako jokalari gehixau egon biheko litzake taldien.



## Rosa Lasagabaster

Dana ez da entrenadorien kulpia, talde osuena baino. Lelengo bertako jokalarixek jokaketako aukerie euki biher dauela uste dot.



## Mari Jose Abad

Ez dot futbola jarraiketan, baina entrenadore aldaketiak ez dau egoeria konponduko.
Kanpoko jokalarixak ekarritta hobetu dau taldiak? Hori da nire galderia.

## ESKUTITZAK

### ZERGATIK?

Igandean nik daukadan aseguru bulegoa erre zutenoi idazten dizuet, galdera sinple bat egiteko. Zergatik erre didazue bulegoa? Zuen helburua Mapfre-ren aurka joatea baldin bazen, (ez dakit zergatik izan daitekeen, baina bueno), huts galanta egin duzue, bulegoa nirea baita (oraindik bankuarena) eta ez Mapfre-rena. Aseguratuta daukat, jakina, baina zuetariko norbaitek ere etxebizitza edo kotxea Mapfren aseguratuta edukiko duzue, eta sua emanez gero, kalte berdina egiten diozue Mapfre-ri.

Nire kontrakoa izan bada, erdi-erdian asmatu duzue, kaltetu bakarra ni izan naiz eta. Lanik ezin dut egin, eta lehen nituen gastuez gain (prestamoak, aseguruak eta abar) beste batzuk daukzkat orain. Horrela bada lehen egin dudan galderari erantzuna eman mesedez, txarto zer egin dudan jakitea nahi dut.

Bestetik nire aurka joanda ere, gainean bizi den jendeak ze erru dauka? Beraiei ere kriston kalteak egiteko arriskua egon zen, nahiz eta zorionez ezer ez gertatu.

Nire aurka ez bada izan, nola konpondu behar duzue niri egindako kaltea?

Hau ulertzeko beste buru badaukazue, zuen erantzuna gustura hartuko nuke.

*Angel Zubillaga Gartzia-Etxabe*

**Aretxagazeta**

201. zenbakia
2000ko azaroaren 9an.

Durana 11, 151 postakutxatila
Aretxabaleta
Tel: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
e-mail: aretxagazeta@euskalnet.net

**Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkartea.

**Lehendakaria:** Edorta Mendieta.
**Erredakzio-kontseilua:** Begoña Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza Antxia, Mireia Uribetxebarria, Goretti Ayastuy, Ibon Agirre.
**Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Mirari Altube eta Iratxe Bengoa.
**Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M. J. Aretxaga, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Felis Beltran de Heredia, Loramendi E. E., Udala.

**Banatzaileak:** Aitor Urrutia, Iratxe Arbulo.

**Inprimategia:** Eguzkigraf, Koop. Elk.

**Tirada:** 2.500 ale.
Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da.
**Lege gordailua:** SS378 / 94.
ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Erakunde hauen laguntzaz

Aretxabaletako Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia
Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

**ARRASATE IRRATIA ASMO ETA PROGRAMAZIO BERRIAREKIN** Joan zen eguakotxean, azaroak 3, Arrasate Irratiak prentsaurrekoa eskaini zuen bere asmo eta programazioaren barri emateko. Irratia orain 6-7 urte sortu zen Arrasateko udalaren eskutik, baina maiatzetik aurrera ARKOk hartu du bere kudeaketaren ardura. Ondorioz, egoitza aldatu da eta langileak, bi kazetari eta bi teknikari, ARKOko lan taldean sartu dira.

Programaketan eman diren aldaketen barri ere eman zen. Goiz eta arratsaldez egiten dira zuzeneko programak, goizean, 9:00etatik ordu 1:00ra, albistegia eta magazina eta arratsaldean, 20:00etatik 22:00etara, kolaboratzaileek gidatutako hainbat programa. Hauek zapatu goizetan ere lan egiten dute. Arrasate Irratia entzun gura duenak FMko 107.7an aurkituko du.

Arrasate Irratia FM 107.7

## Euskal nortasun agiria Loramendi euskara elkartean atera daiteke

Euskal nortasun agiria, ENA, izan gura duenak, Loramendi euskara elkartean egin dezake eskaera. Horretarako, argazkia, 1.000 pezeta eta NANaren edo familia liburuaren kopia ekarri behar dira. Eskaerak Bilbora bidaltzen dira eta hilabeteko epean ENA eskuan izango du gura duenak.

Bestalde, Aberri egunean ENA egiteko eskaera egin zuten hainbat herritarrek, Aretxagazetan daukate karnet hori jasoteko zain.




## Kepa Urra Galizian inkomunikaturik

Kepa Urra Madrilgo Alcala Meco espetxetik A Coruñako Curtisko espetxera eraman zuten orain bi aste. Urriaren 23an Madrildik atera eta 25ean A Coruñara heldu zen. Ingresoko modulo batean bete zuen lehendabiziko eguna, eta ondoren, inongo arrazoi barik, aislamenduko modulo batean sartu zuten. Joan den domekatik, bestalde, guztiz inkomunikaturik dago, ez bisita, ez eskutitz, eta telefono dei barik.

Euskal Presoak Euskal Herrira Aretxabaletako plataformak jakinarazi digunez, lehen Madrilerako bidean 850 km, 8 orduko bidaia eta 15.000 pta beharrezkoak baziren, A Coruñara bidean 1.400 km, 2 egun eta 40.000 pta behar dira bidaia bakoitzeko.

Plataformak herritarrei dei egiten die Keparen egoera gogoan izateaz gain, eskutitzak idazteko. Helbide berria: Centro Penitenciario Texeiro/Carretera Paralelo s/n 15.310 TEXEIRO-CURTIS A CORUÑA

**MAPFRE ERRE DUTE ASTEBUKAERAN**

Astebukaera honetan, zapatutik domekara bitartean, Mapfre aseguru etxeko Aretxabaletako bulegoa erre zuten ezezagun batzuk. Leihoa apurtu eta Angel Zubillagaren bulegoa guztiz erreta geratu zen. Garbiketa eta konponketa lanak direla eta, aste pare batean behintzat itxita egongo da bulegoa.



**UDALAREN IDATZIA MAPFREKO BULEGOA ERRE DUTELA ETA**

Udaleko gobernu batzordeak elkartasuna adierazi die Mapfreko bulegoa erre ostean, kaltetuak izan diren guztiei. Era berean, mota horretako ekintzek bizi dugun gatazka politikoa areagotzeaz gain, aurrerapausoei ez dietela inongo mesederik egiten ere aurreratu du. Bukatzeko, demokrazia egoerara iristeko, elkarrizketa bideak garatu behar direla azpimarratzen du.

Okindegia - Gozotegia
Aretxabaleta
Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19
Basabe, 2- ☎ 943 77 00 81
Aretxabaleta
Bertako okina

Mobiliario Arenaza
. ALTZARIAK
. DISEINUA
. APAINKETA
Bizkaia,1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

BENGOA
URDAITEGIA
Bertako okelak eta mortzilak
Durana, 9
Tel.: 943 79 19 79




## BIRZIKLAPENAREN GAINEKO GIDALIBURUA BANATU DA

Debagoienako mankomunitateak Birziklapenaren Gidaliburua banatu du etxez etxe. Gidaliburu horretan mankomunitateak herritarren esku jartzen dituen zerbitzu guztiak agertzen dira. Bakoitzari buruzko argibideak ere ematen dira, beti ingurumen alderdiak kontuan hartuta.

Liburuska horren bidez, herritarra bere laguntza ematera bultzatu gura da eta laguntza hori modu egokian eman dezan hainbat aholku eskaintzen dira. Jendeari, birziklatzea nahitaezkoa dela ingurumena babesteko esan gura zaio. Garrantzitsuena, barrez, egunero sortzen den zabor kopurua gutxitzea da, momentu honetan kilo bat biztanleko eta eguneko gutxi gorabehera.



*Industrialde berriak 15.000 m² izango ditu eta 765 milioiko inbertsioa egingo da.*

# Bainetxeko industrialdean lehenengo harria jarri da

Azaroaren 7an Bainetxeko industrialdeko lehenengo harri jartzea egin zen. Ekitaldi horretan, Iñaki Telletxea, Eusko Jaurlaritzako Industria Politikarako Sailburuordea, Angel Martin, Gipuzkoako Foru Aldundiko kidea, Anton Zubiaurre, SPRILUReko zuzendari orokorra eta Anjel Bergaretxe, Aretxabaletako alkatea izan ziren. Ohorezko aurreskuaren ostean, lehenengo harria jarri zen. Ondoren, gaurko egunkariak, Aldizkari Ofizialak, erabilera legaleko monetak, eta sinaturiko zeremoniaren agiria kutxa batean sartu eta lurpean gorde zituzten. Aipatutako agintariekin batera zinegotziak, inguruko herrietako alkateak eta arlo ekonomikoan adituak diren hainbat lagun batu ziren ekitaldian.

Bainetxeko lurrak 1998. urtean erosi zituen udalak eta industri pabilioiak egiteko erabiliko dira. Industrialdeko poligono barriak 15.000 m² izango ditu eta 765 milioi pezetako inbertsioa egingo da. Pabilioi guztiak, jadanik beteta. Lanak 2001. urteko irailerako bukatuta egotea espero da. Jarduera industrialaz gain, errekaren eskuma aldean espaloi-bidegorria egiteko asmoa dago.

## ANDRA MARI AUZUNEKO FATXADAK EGOERA ESKASEAN

Urriaren 30ean izandako haize zakarrak Andra Mari auzuneko etxebizitza baten fatxada zatia bota zuen. Zorionez ez zen inor azpian suertatu eta udaleko zerbitzuetako langileek berehala garbitu zuten kalea.

Auzune horretako etxebizitzetako fatxadak, hezetasuna dela eta oso egoera eskasean daude. Horren aurrean eta zerbait egin guran, orain hilabete batzuk udalarekin kontaktuan jarri ziren bizilagunak, egoeraren berri eman eta diru laguntzen berri izateko. Bai udala, bai bizilagunak ados daude etxeek konpondu beharra dutela esatean; baina lanen hasiera oso astiro doa. Asteleheneko apurketaz agerian geratu da etxebizitzek berriztu beharra daukatela eta lehenbailehen bada hobeto.



GARBITU S. KOOP
Garbiketa orokorrak
Errekabarren 3- Behea
Tel: 943 79 01 28

ITURGINTZA
J.J
Jose Jabier Irure
URA, GASA ETA KALEFAZIOA
Tel.: 943 79 07 34
943 79 31 87

OSKAR GARAJEA
Basabe Poligonoa, A-2-4
Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
ARETXABALETA

M
MEMESA
Industri hornidurak
Tel.: 943 71 24 11
ARETXABALETA



**▮ DURANA KALEKO ETXEAK BOTATZEN HASI DIRA** Aste honetan bertan hasi dira Durana kaleko etxeak botatzen. Arritzeko enpresa eraikitzailea da etxeak bota eta berriak egiteko ardura duena. Lau atari izango dira eraberrituko direnak 15, 17, 19 eta 21. Etxeok, gainera, herriko alderdi historikoan kokatuta daude, beraz, Durana kalera ematen duten fatxadak lehengoen berdinak izan beharko dira, bai material aldetik, bai itxura aldetik. Eraberritze lanak 2002. urte hasierarako bukatzea espero da.

## Romalduena zapata fabrikako langileek bazkaria egin zuten

Urriaren 25ean Rolba S.A. zapata lantegian lanean ibilitako hainbat lagunek bazkaria egin zuten Taberna-Berri jatetxean. Urtero ez bada ere, sarritan saiatzen dira elkartzen eta aurten 25 bat lagun batu ziren, batzuk kanpotik etorritakoak. Aspaldiko kontuak gogoratu eta tertulia giro bikaina izan zen bazkal ostean Taberna-Berrin.

Rolba S.A. edo Romalduena zapata fabrika 1921. urtean sortu zuen Romualdo Leanizbarrutia Zuazua apotzarrak. Penintsula mailan entzute handiko enpresa izan zen. 70 langile zituen, patroigile, diseinatzaile, jostun eta beste hainbat langileen artean. Alpargatak, sandaliak, larruzko botak… egunero 750 bat pare zapata produzitzen ziren. Lantegia 1966. urtean itxi zen.



## AITA MENNIK UNITATE BERRIA INAUGURATU DU

Joan zen urriaren 30ean, 35 lagunendako lekua duen erresidentzi unitate barria inauguratu zen Arrasateko Aita Menni ospitalean. Arazo psikikoak dituztenentzat izango da unitate barri hori, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku dagoenez, erabiltzaileek diru laguntzak izango dituzte. Deba Goienako herri bakoitzari dagokion plaza banaketa biztanlegoaren arabera egin da. Aretxabaletari 3 leku dagokio eta gaur egun hirurak beteta daude.

Proiektuaren arduraduna den Elena Berecibar gizarte laguntzailearen hitzetan, norbanakako arreta izango dute helburu.

Norbaitek informazio gehiago edo zerbitzu hau erabili gura izango balu, udaletxeko gizarte zerbitzuetara zuzendu daiteke bulego orduetan.

FOTO Urkiola ARGAZKIAK
Bataioak
Jaunartzeak
Ezkontzak
Albunak
Argazki kamarak
Markoak...
Herriko plaza, 5-behea
Tel.: 943 79 39 20
ARETXABALETA

Bereziki: Harategia
Urdaitegia
Fruitategia
IMANOL JANARI DENDA
Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83

HAURRAK
Umeendako moda
Lezama merkatal zentrua, 15
Tel.: 943 77 14 86
ARETXABALETA

MAITE
ileapaindegia
Sarasate, ☎ 943 79 59 05
ARETXABALETA

Lasai
Mirian Manteca
MASAJISTA
Lezama merkatal zentrua
Santa Kurtz, 24 etxabea
20550 Aretxabaleta

Masaje terapeutikoan
Posturen azterketa eta egokitzean
diplomatua
Tel.: 943 77 04 34

PAGALDAI
Opari denda
Lurrindegia
Durana, 33 ☎ 943 79 10 14


Astra
Coupé
Astra Coupe.
Opel Coupe
kotxeen
tradizioa.
COUPE
Garaje Talleres Norte, s.l.
Zerbitzu ofiziala
Basabe poligonoa A-13
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 71 20 03
Fax: 943 77 16 20
OPEL


horma armairuak
AZKARATE
AROZTEGIA
ARETXABALETA 943 77 01 24
BERGARA 943 76 47 19
Ateak, leihoak,
horma armairuak, tarimak
eta parketak
tolesgarriak
horma armairu
irristagarriak
ARDATZA
Brikolaketa
Masterreka, 4 behea. Tf.: 943 76 18 93 • BERGARA



*Astero*



*Bailaran*



*Euskaraz*



*Doan*



Abendutik aurrera, zure eskura.

***26 urte ditu eta neska lagunarekin batera Asia eta Ozeania aldean ibili da urte betean. Tailandia, Indonesia eta Australia izan dira bisita guneak, azken honetan, gainera hamaika hilabete inguru pasatu ditu.***




# Asier Cobos

## Urte bete Australia aldean

**▮ Non ibili zara azkenengo urtean?**

▮ Australia aldean. Londresetik atera eta Tailandian hilabete pasatu ostean, Australiara joan ginen. Australia osoari eman genion buelta, hamaika hilabetean eta handik Indonesiara pasatu ginen beste hilabete egoteko etxera bueltatu aurretik.

**▮ Zergatik aukeratu zenuen Australia?**

▮ Txikitatik geneukan neska lagunak eta biok Australia ezagutzeko gogoa, batez ere lurralde ezezaguna delako euskaldunontzat. Bidaia hau antolatu aurretik Irlanda eta Eskozian egon ginen lanean hilabete batzuetan eta australiar ugari ezagutu genituen bertan. Eurek animatu gintuzten bidaia egitera.

**▮ Zein izan da bidaiaren helburua?**

▮ Australia ezagutzea beste barik. Sidneyra heltzerakoan furgoneta zahar bat erosi genuen, ohe eta guzti, eta horrekin Australiari buelta eman diogu.

**▮ Lanik egin duzue?**

▮ Bai, bai. Gure asmoa bertan lan egitera joatea zen baina lan egiteko bisatua lortzea oso gatxa da eta ez ziguten eman. Tailandian egon ginenean zilarra erosi genuen eta gero hemen, merkatuetan salduaz atera dugu dirua. Mekaniko lanetan ere ibili nintzen hilabetean. Bidaia autofinantziatzea gura genuen eta %100 ez bada ere, lortu genuela esan dezakegu.

**▮ Nolakoa da Australia?**

▮ Zaila da deskribatzea. Ekialdeko kostaldea, batez ere iparraldea, oso berdea da, oihan tropikal eta paradisu itxurako irlez josita dago. Barrualdera sartuz gero dena desertua da, hare gorriz eta zuhaiska txikiz osatutako desertua. Mendiak ere badaude, kainoiak... Paisaje aldetik oso aberatsa da. Hiriak bestalde, gutxi daude, zazpi bat, oso modernoak gainera. Erdialdea etxe garaiz osatua dute, komertzio eta negozioetarako eraikuntzez, eta kanpoaldean hiritarrak bizi diren etxe txikiak daude.

**▮ Jendea zelakoa da?**

▮ Oso jatorra. Kanpoko jendeari laguntzeko eta etxean hartzeko ere beti prest daude.

**▮ Aborigenekin egon zarete?**

▮ Ikusi genituenak hirietan bizi direnak dira eta hauetako asko erabat jota daude, alkohola dela eta. Era tradizionalean bizi direnak ere oraindik badaude basamortuan eta iparraldeko irla batzuetan baina oso zaila da hauek ikustea.

**▮ Tailandia eta Indonesia ezberdinak dira?**

▮ Bai, guztiz. Australiarrek europearren bizimodua daramate, hori bai estress gutxiagorekin. Tailandia eta Indonesian, bestalde, kultura eta bizimodu guztiz ezberdina daukate. Tailandiako iparraldean "emakume jirafak", lepoa eraztunez luzatuta dutenak, ere ikusi genituen.

**▮ Orain etxean...**

▮ Denbora gutxirako. Hamabost egun barru Andorrara goaz lanera bost hilabeterako. Diru apur bat atera eta gero pentsatuko dugu hurrengo bidaian.

# Zutabien gora



Beti miretsi izen dot eta miretsiko dot egunero-egunero bere iritzi zutabie idazten dauen edozein. Zela demontre egiten daue? Egixe esan, hamen Euskal Herrixen badau zer idatzi, bai.

Hola ba, neu be ordenadore aurrien jarri naz pantailiari begire-begire; baina ez datorkit ezer burure edo kontu larregi, akaso. Estrategia metodikoago batei heltzie hobe izengo dot! Gai posiblien zerrendie egin biherko neuke lehenengo; eta eskemie hurrengo, gai bat aukeratu ostien. Tira, gai zerrendiari leihuek zabaldu dutsiet; ez aldenik alden be, azaruaren lehen hontan dagoeneko hotz egiten dau-eta, neguen be sartu gare itxurie.

Ez dau gauza hobarik ondo antolautako lana baino, badatoz polito-polito gaixok:

-"Las Madres de la Plaza de Mayo": eskerrak emuteko gutun bat idatzi neike, espainolek diseinautako desinformazino sarietatik ihesi, argi ikusi dauelako gure herrixen egoerie: torturak, dispersino kriminala, Estatuaren terrorismue...

- "Desobedientzia zibila": jendie animau leike, herri moduen bizi dogun injustiziari aurre egiteko bide ezin hobie da eta. Kontue da bidezkue dana egitie, eta bidezkue ez dana ez egitie.

- "ETB eta Euskal Herrixaren eskubide demokratikuen aldeko manifestazinue": lotsagarrixe. Antolatzailiek manifestazinue biher dan moduen jarraiketako eskaeriari ezentzuna egin eta betiko moduen irudi batzuk besterik ez zauen bota, azken urtietan Donostian egin dan manifestazinorik haundixena izen bada be. Beste batzuetan ipurdixe galdu biherrien ibiltzen die ba!

- Euskalduntasunaren kriminalizazinue: negargarrixe. Laster neu be kartzelan sartuko naue honen gainien idatzi ezkero, ETA ingurukue ("del entorno de ETA" Belarri Haundixaren hizkuntzan) nazela-eta. Bai, kontaizue hamen testuen bertan zenbat "eta" dazen.

- Domusantu egune: tetrikoegixe.

Dana dala, inderrik ez daukot bazkalostien, baba platerkadie eta buzkentzie jan eta gero, ondion digestinue egin barik, holako gai batei obaketako. Ni baino profesionalago batei itxiko dutset hori lanoi.

Hola ba, txiste bat kontauko dot; luzetxue, zutabie beteteko bestekue.

Horra ba txistioi:

Badoiez tren baten amerikano bat, frantses bat eta euskaldun bat. Sartu da trenien euli gogaikarri bat, ikusi dau amerikanuek eta danga bota dutzo txua eta baita erdi-erdixen jo be. Amerikanuek orduen harro-harro: "Jon Smith, munduko txapeldune txue botaten". Sartu da trenien beste euli bat eta frantsesak danga jo eta akabau dau txuaz: "Fransua, munduko txapeldune txu-jaurtiketa librien" bota dau frantses horrek praketan kabiru ezinik. Ikusi dau eukaldunak beste euli bat, ondo apuntau eta danga jo dau Frantsesoi begixen: "Joxe Mari, afizionau".

Mari Joxe: afizionada

*Miriam TXINTXURRETA*

ARBULO
HARATEGIA
Santa Kurtz, 5
Tel.: 943 79 02 24
ARETXABALETA



Zubia
Poltsak • zapatak • gerrikoak
Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1• ☎ 943 79 66 53 ARRASATE

MAPFRE
Aseguroak
Errekabarren, 3
Tel.: 943 77 11 76



"Jabego horizontalaren legea" aldatu denetik gero eta bizilagun gehiago animatu da igogailua jartera.

# Igogailuak, luxutik beharrera

***Etxebizitzaren arazoa ez da gero brometakoa. Berriak garesti eta zaharrak ere merke ez... Zaharrek, gainera, nahiz eta oso egoera onean egon, sarritan gabeziaren bat daukate, garrantzitsuena igogailua. "Jabego horizontalaren legea" deritzaion araudia aldatu ostean, etxe zaharretan igogailua jartzea asko samurtu da eta herritarrak ere poliki-poliki animatzen hasi dira.***

Orain 30 urte etxebizitzak erosi zituztenek ez zuten igogailuan erreparatu ere egin. Nahikoa buruhauste izango zen etxea nola ordaindu asmatzea igogailuaz kezkatzen hasteko. Ez baserriek, ez kaleko etxeek, asko jota ere hiru solairutakoak, ordurarte ez zuten igogailurik eta bizilagunek beharrik ere ez, halaxe bizitzera ohituta baitzeuden. Etxebizitza berriak, ostera, garaiagoak dira, lau eta bost pisutakoak, eta orduan aide igoten zituzten bikote gazteei gaur egun kosta egiten zaie eskailera multzoa igotea.

**Igogailuen booma**

Orain 12 bat urte hasi ziren lehenengo bizilagunak etxe zaharretan igogailua jarteko informazio eske, etxe berriek igogailua zutela ikustean. Benetako interesa, ostera, iaz etorri zen, "jabego horizontalaren legea" berrikusi eta aldatzea erabaki zenean. 1999ko "jabego horizontalaren legea" baino lehen, etxebizitza batean bizilagun bakar batek ezetza emanez gero ez zegoen zereginik, elbarritu bat bizi eta epaileak jarteko agindu ezean.




**"Igogailua jartea ez da gastu bat, inbertsio bat baizik"**

Orain arte, Aretxabaletan, 6 etxeri jarri zaizkie igogailuak, batzuk jadanik jarrita daukate eta beste batzuk lanak bukatzekotan daude. Santa Kurtz kalean bi, Loramendin beste bi, Lausittan eta Aralar kalean daude orain arte jarritakoak. Informazio eske, barrez, bizilagun ugari hurreratu da udalera.

### 1999ko jabego horizontalaren legea

Etxebizitzen inguruko araudia zehazten duen 1999ko lege horren arabera bi baldintza bete behar dira igogailua jarri ahal izateko: batetik, 5 bizilagunetik 3 ados egotea eta era berean, 3 horiek etxebizitzaren parte hartzean ere 5etik 3 izatea. Etxebizitza batean bizilagun guztiek ez daukate parte hartze kuota berbera, pisu baten jabe izatea, garaje batena edo baju batena ezberdina da. Parte hartze kuota hori etxearen eskrituretan zehaztua dator eta legeak hori ere kontuan dauka, ados daudenek 5etik 3ko parte hartzea izan behar dutelako.

Bizilagun bakoitzak ordaindu beharrekoa ez da berdina izaten. Aitatutako lege horren arabera, etxebizitzaren eskrituretan zehaztuta datorren parte hartze horri begiratu behar zaio.Teilatua, fatxada edo etxearen estruktura konpondu eta ordaintzeko orduan parte hartze portzentaia kontuan hartzen den moduan, igogailuaren kasuan ere berdin. Egia da, ordea, sarritan ez dela irizpide hau erabiltzen. Askotan, solairuaren garaieraren arabera ordaintzen dute bizilagunek, hau da, bosgarren pisukoak gehiago bigarren edo lehenengokoak baino eta bajuetan bizi direnak ez dute ordaindu ei izan. Jose Mari Segovia, udaleko hirigintza teknikariak dioenez: "Bizilagunak eurak dira zein irizpide erabili erabakitzen dutenak. Hala ere legea eskuan hartuta, denei tokatuko litzaieke ordaintzea bakoitzak duen parte hartzearen arabera. Gainera, lehenengo pisua izan bosgarrena izan, igogailua jarterakoan etxe horren balioak igo egiten du. Izan ere, igogailua jartea ez da gastu bat, inbertsio bat baizik: batetik, zeure onerako delako eta bestetik, pisua saltzeko orduan ere prezio altuagoa eska daitekeelako".

### Diru laguntza gutxi

Etxeetako fatxadak konpontzeko bezalaxe igogailuak jarteko ere badaude diru laguntzak. Horren berri izateko Suradesara jo behar da eta norberaren egoera ekonomikoaren arabera aztertzen du honek eskaera. Dena dela administrazio aldetik ez dago laguntza haundirik. Jose Mari Segoviaren arabera, bai udalak, bai Eusko Jaurlaritzak laguntza gehiago eskaini beharko lituzkete: "Igogailua jarri gura dutenak sarritan, jubilatuak edo bikote gazteak izaten dira, biak ere diru gastu haundirik egiteko aukerarik ez daukatenak. Administrazioak lagunduz gero asko samurtuko lieke arazoa".

### Etxe bakoitza kasu bat

Orain 30 urte etxebizitzak egin zituztenean, orduko arkitektoek ez zuten igogailua kontuan izan. Beraz, kasu gehienetan, etxebizitzaren barruko estruktura txikiegia da eta igogailua kanpoko fatxadan jarri beharra dago. Aretxabaletan bi kasuak egon dira: batzuetan atarte barruan bertan jarri da igogailua, atartea eta eskailburuak nahikoa zabalak direlako eta beste kasu batzuetan, fatxadan jarri behar izan da barruan sartzeko aukerarik ez delako egon. Bigarren kasu horretan, espa-

loi zatia, zati publikoa, hartzen du igogailuak eta Aralar kalekoari, esaterako, espaloi zatia zabaltzea jarri zaio baldintza gisa udalak emandako baimenean, espaloiak gutxienez 1,80 metroko zabalera izan behar duelako. Udalak, bestalde, orain arte egindako eskara bati ere ez dio inolako trabarik jarri, nahiz eta sarritan etxeko fatxada asko zatartu.

**Igogailua jarteko lanak**

Igogailua jarri gura duten bizilagunek hurrengo prozedimendua jarraitu behar dute: Lehenengo udaleko hirigintza sailean asmoaren berri eman, eta bertan, etxebizitzaren estruktura kontuan hartuta lehenengo aholkuak emango zaizkie. Ondoren, igogailua jarri behar duen enpresarekin kontaktuan jarri eta aurrekontua eskatuko da. Bizilagunak ados badaude, proiektua egin behar da eta proiektu hori udalean aurkezterakoan obra-baimena ematen da. Igogailu-jartze lanak bukatzerakoan, ostera, udalak aktibitate baimena ematen du, igogailua erabiltzen hasteko. Proiektua esaterakoan, bi proiektu ulertu behar dira: batetik, instalazio-proiektua, hau da, kabina, errailak, makina-gela..., eta bestetik, proiektu arkitektonikoa. Biak aurkeztu behar dira udalean obra-baimena lortzeko.

Igogailua jarteko lanak hasi bai baina bukatu noiz? Sarritan oso luze joaten dira eta bizilagunek asper-asper eginda bukatzen dute. "Igogailuak jartze hori boom bat izan da, ez bakarrik Aretxabaletan, baita Arrasaten, Bergaran, Oñatin ere... Beraz, igogailu-jartzaile eta egileak lanez gainezka dabiltza, eta hilabete erdian egin daitezkeen lanak urte erdi eta urte bete luzatzen ari dira" dio Jose Marik.

Orain urte batzuk norbaiti luxua zela iruditu arren, argi eta garbi dago gaur egun beharrean bihurtu dela. Elbarrituak, adinekoak, ume txikidun gurasoak... denentzako dakartza onurak igogailuak, 5. pisuan edo 1.an bizi.



## Igogailua jartzearen gorabeherak

Santa Kurtz 10 atartean uztailean hasi ziren igogailua jarteko lehenengo zuloak egiten. Abuztuan eskilara bota zuten eta hilabete osoan etxean sartu ezinik egon ziren. Azaroa heldu da eta oraindik poliki doaz lanak: igogailuarentzako zuloa egina dago baita hormak jarrita ere, eta metalezko estruktura ezarri diete eskilarei. Gabonetarako lanak bukatuko zituztela esan bai, baina bertako bizilagunek ez daukate horren itxaropenik, langileek aste batean bai eta hurrengoan ez baitute lanik egiten.



Hasieran zalantzak agertu baziren ere bizilagunen artean, ordaintzeko orduan ez da inolako arazorik egon. Izan ere solairuaren garaieraren arabera ordaintzea erabaki dute: lehenengo pisukoak %10, bigarrenekoak %20, hirugarrenekoak %30 eta laugarrenekoak %40. Ezintasun fisikorik duenik bizi ez arren, gero eta jubilatu gehiago dago atarte honetan ere, beraz, luzera begira ezinbestekoa izango dela pentsatuta ausartu dira igogailua jartzeko lanak hastera. Santa Kurtz 10ekoek, gainera, zortea izango dute eta etxearen kanpoaldean ez da ezer nabarituko, ez hori bakarrik, igogailua etxebizitza bakoitzeko ate parean geratuko da eta atartean geratzen zaizkien hiru mailak pasatzeko arrapala jarriko dute.

### Korrika

**Hogeita hemeretzi atxabaltar Behobia Donostiarako gertu.** Azaroaren 12an ospatuko den Behobia-Donostia lasterketara joateko hogeita hemeretzi atxabaltarrek eman dute izena. Iazko datuekin konparatuta bi lagun gehiago joango dira aurten. Urtetik urtera afizionatuen kopuruak gorantz egiten du, eta gero eta popularragoa bihurtzen ari da lasterketa. Herritik autobusa antolatu da, eta goizeko 8:00etan irtengo da Azbeko geltokitik.

### Futbitoa

**Zazpi taldek izena eman dute futbito txapelketan.** Aurten zazpi talde arituko dira futbito txapelketan. Azaroaren 4an hasi zen, eta zapaturo jokatuko da Andra Mariko futbito kantxan. Izena eman duten taldeak DDK, Kemen, TPT, Klemente Forever, Garaje Tanis Mulas, MCM, eta Kilimon dira. Partiduak zapatu goiz eta arratsaldetan jokatuko dira, eta antolatzaile lanetan German Arriola arituko da.

### Pilota

**Klub arteko partiduak zapatu arratsaldean.** Gipuzkoako klub arteko pilota txapelketa aurrera doa. Datorren zapatuan sei partidu berri jokatuko dituzte herriko pilotariek. Horietatik lau etxean jokatuko dira zapatu arratsaldean 18:30etik aurrera. Lehen mailako kadeteek Zurriolaren aurka jokatuko dute, jubenilek Gazte Lekuko pilotariak izango dituzte aurrez aurre, eta seniorrek Lazkao eta Zumarragako pilotariak.

### Xakea

**Arlutz A taldeak azaroaren 18an hasiko du liga.** Hilaren 18an Euskal ligan dagoen Arlutz A taldeak ligari hasiera emango dio. Taldekideak Gasteiz aldera joango dira, Buztin zuri taldearen aurka jokatzera. Aurtengo hau bigarren urtea izango dute Euskal ligan, eta hamar talde izango dituzte aurrez aurre. Arlutz Bk, bestalde, joko ona erakutsi du azken bi jardunaldietan. Orain aste bi 3-1 irabazi zuen, eta pasa den asteburuan bina berdindu zuen Beasainen aurka.



## Alberto Iñurrategi Maliko hormak igotzeko gertu

Datorren hilaren 21ean Malira abiatuko da Alberto Iñurrategi. Maliko ekialdean dagoen "La mano de fatima" izeneko hormak eskalatzera. Berarekin batera Jon Lazkano bergararra han izango da, eta baita, Asier Aranguren eta Gotzon Arribas kameralaria ere. Malin hiru astez egongo dira, eta abenduaren 15ean etxerako bidea hartuko dute.

**Gogoz eta ilusioz**

Alberto gogoz eta ilusioz dago Malira abiatzeko. Bere burua zelan aurkitzen duen ikusteko momentu egokia izango dela azaldu digu. "Azken egunotan oso okupatuta nabil, eta gogoa daukat hemendik irteteko, eta neure burua nola aurkitzen dudan frogatzeko. Era berean, gure arteko talde lana martxan jartzeko, eta nola konpontzen garen ikusteko ere, balioko digu abentura berri horrek".

Taldearen asmoa grabaketa lan batzuk egitea da, "ez goaz eskalada zailak egitera, telebistarako zeozer polita eta txukuna egitera baizik".

Afrikako kontinentean lehenengo esperientzia biziko du Albertok. Aspaldítik gogoan zuen abentura, gainera: haitzetan gora ibiltzearena. Ea ba gozatzen duten Maliko hormetan gora.

IRIARTE
Umeen denda eta lentzeria

Durana, 8 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 10 96

LEIBAR
arrandegia
Mitarte Kalea, 1
Tel.: 943 77 13 79
ARETXABALETA


Aldizbi

# Joseba Larrinaga eta Pedro Mari Azkargorta

## "Australiako paraolinpikoek ikusmin haundia sortu dute"

*Josebak eta Pedro Mari Azkargotak balorazio baikorra egin dute Sidneyn lortutako emaitzaz. Izan ere, mundu mailako proban bostgarren postua lortzea, txalotzekoa eta zoriontzekoa da. Orain, ostera, hausnarketarako denbora iritsi da bientzat.*

**▌Zein punturaino bete da zure helburua?**

**▌Joseba:** Nire helburua hiru lehenen artean sartzea zen. Hala ere, proban egon den maila altua eta ibilbidearen gogortasuna kontuan hartuta, bostgarren postua ona dela deritzot. Horrez gain, kontuan hartu behar da, hirugarren postutik minutu eta erdira sartu naizela.

**▌Joko paraolinpiko onenak izan direla esan da, zuek ere horrela uste duzue?**

**▌J.:** Kiroları ontzat antolaketa oso ona izan da. Baimen berezi bat izan dugu, eta horrek samurtasun ugari eskaini dizkigu. Atlantakoen aldean, bestalde, hemengoek ikusmin haundia sortu dute. Adibidez, inaugurazio eta amaierako ekitaldian estadioa beteta egon zen.

**▌Pedro Mari:** Nik baimen berezirik ez nuenez, traba ugari aurkitu ditut. Alkar ikusteko arazo izugarriak izan ditugu. Baimenik ez nuenez, ezin nintzen pistetara sartu, eta Josebak berak eskatu behar izaten zuen baimena nirekin egoteko. Hortik aparte, jokoek sortu duten ikusmina azpimarratuko nuke. Eguneko gutxienez 300.000 sarrera saldu dira.

**▌Euskaldunok aipatzeko lana egin dugu Sidneyn.**

**▌J.:** Bai, hala da. Euskal Herriko ordezkaritzak estatuko 17 dominetatik 13 lortu ditu. Sei urrezko, bost zilarrezko eta brontzezkoak bi. Diplomak (finalean sartu direnak), barrez, 15. Horrek esan gura du Euskal Herria estatua izango balitz, domina kopurua kontuan izanda, 26. postua lortuko zuela. Eta danera 60 estatu egon dira joko paraolinpikoetan.

Emaitza horiek ikusita, aurrerantzean Euskal Herriak bere selekzioa izatea pentsatu beharrekoa izango da.

**▌Zer egin duzue han egon zareten bitartean?**

**▌J.:** Maratoia jokoetako azken proba izan denez, ez dut denbora libre gehiegi izan. Tartean Sidney bisitatu dugu, Euskal etxea eta hiria bera.

**▌P. M.:** Komunikabide zentruan pasatu ditut ordu gehienak. Txema Alonso Saiatuko koordinatzaileari laguntzen ibili naiz. Bion artean han izan diren kirolari euskaldunen emaitzak eta informazioa bidali ditugu hemengo komunikabideetara.

Horretaz aparte, hainbat kirol ikuskizunetan egon naiz.

**▌Zer zapore utzi dizue joko paraolinpikoek?**

**▌P. M.:** Aurrean esan dudan moduan hainbat kirol konpetizio ikusteko aukera izan dut. Horietatik batzuk benetan ikusgarriak izan dira, saskibaloia, tenisa, igeriketa eta bocchia esaterako. Elbarrituek maila horretara heltzeko egin behar duten sakrifizioaz sentsibilizatuta etorri naiz. Kirolari paraolinpikoak ez dira normalean profesionalak, eta dauden mailara heltzeak izugarrizko esfortzua suposatzen du. Hemen sentsibilizazio hori falta dela uste dut.

**▌Atenasekoak hurrengo, urrintxo daude erabakirik hartzeko?**

**▌J.:** Momentuz errekuperatu eta deskantsatu egingo dut, eta gero etorriko da hausnarketarako garaia. Garbi dagoena zera da, konpetizio maila altua dela, eta hurrengo paraolinpikoetan parte hartzeko asko sakrifikatu beharra dagoela.

**▌P. M.:** Gizarteak eta gobernuak sentsibilizatu behar dute, eta kirolari hauei behar bezalako laguntzak eskaini. Legea kirolari guztiontzat berdina izan beharko litzateke. Laguntza ekonomiko barik oso gogorra da beste lau urtean jardutea. Zure lana egin, eta gogor entrenatzea sakrifizio haundia da.



INDUSTRIA HORNIKUNTZAK
RKU
URKULU, S.L.
Mitarte, 23
Tel.: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33

Etxabe haragtegia
Durana 4
☎ 943 79 16 61

PIENSOS UNZUE S.A.
FELIX PAGALDAY
Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak
Mitarte, 7 behea
☎ 943 77 00 33/79 42 56

Frutan eta txarkuterian espezialitatea
Angelines
AUTOZERBITZUA
Mitarte, 16 • 943 79 61 42

*Loramendi euskara elkarteko dinamizatzaile berria da Nerea Elorza. Jaiak eta ekitaldiak antolatzeaz arduratuko da besteak beste. Gaur egun Aretxabaletan bizi bada ere, nafartzat dauka bere burua.*



# Nerea Elorza

## "Nafarroako jendea hemengoa baino irekiagoa da"

▮ **Zer moduz lan berrian?**

▮ Oso gustura.

▮ **Zein lan egingo duzu Loramendi elkartean?**

▮ Kultur dinamizatzaile lanak egingo ditut. Euskararen inguruan egiten diren jaiak eta ekintza desberdinak antolatu, San Migelak, Euskararen eguna, ikastaroak, hitzaldiak...

▮ **Udazkeneko ekintzek ekarriko digute berrikuntzarik?**

▮ Diptiko bat atera dugu udazkeneko ekintza guztiekin.

▮ **Zein ezaugarri behar da horrelako lan batean aritzeko?**

▮ Irekia izatea beharrezkoa da.

▮ **Goizez ikasten diharduzu, zer ikasten duzu?**

▮ Haur hezkuntzara bideratutako magisteritza.

▮ **Etorkizunean non lan egitea gustatuko litzaizuke?**

▮ Haur hezkuntzan.

▮ **Ikasketak eta lana nola daramatzazu?**

▮ Ondo, aurtengoa hirugarren urtea dut karreran, eta orain arte guztia gainditu dut. Bestalde, Aleccop-en lan egiten nuen hemen hasi artean.

▮ **Aretxabaletan bizi baina nafartzat ei daukazu zeure burua.**

▮ Bai, Aretxabaletan jaio nintzen, eta egun bertan bizi naizen arren, Nafarroako Atallo herrixkan hamazazpi urtean bizi izan naiz. Nafarra naiz, beraz.

▮ **Non dago Atallo?**

▮ Nafarroa eta Gipuzkoako mugan dago. Oso herri txikia da.

▮ **Hango eta hemengo jendea oso desberdinak dira?**

▮ Bai, hango jendea irekiagoa da.

▮ **Ondo integratu zara herrian?**

▮ Familia hemengoa dut, eta beti etorri izan naiz Aretxabaletara. Beraz, ez da hain salto haundia izan.

▮ **Astebukaeretan zer?**

▮ Ahal dudanean Atallora joaten naiz, lagunekin egotera.

▮ **Euskaraz bi euskalkietan ondo moldatzen zara.**

▮ Atxabaltarrez berba egitea gehiago kostatzen zait. Hala ere, hemengoekin Atxabaltakoa eta hangoekin bertakoa egiten dut.

▮ **Euskal Nortasun Agiria baduzu?**

▮ Bai.

▮ **Zer egin behar da ateratzeko?**

▮ Loramendira zuzendu. Argazkia eta NANaren fotokopia ekarri behar dira, eta 1000 pta ordaindu.

▮ **Nafar eta gipuzkoarren artean badago lehiarik?**

▮ Bai, gipuzkoarrak Nafarroara onddotan joaten direlako, eta nafarrak Gipuzkoako hondartzetara.

OLABEN
· BILTEGI HOZKAILUA
· HARAGI PRODUKTOAK
· INDIOILARRA ZATITUTA
· UNTXIAK
· TXERRIKIAK
· IZOZTUAK
· BASERRIKO OILASKOAK
Basabe Poligonoa A-15
☎ 943 79 34 28 • Faxa: 943 79 34 28

ARETXABALETA
ITURGINTZA
Durana, 16-Tel.: 79 17 53
ARETXABALETA

Lie
Lurrindegia
Opari-denda
Mitarte, 18 ☎ 79 38 59



## Medioak medio

Medioei edo komunikabideei esker heltzen zaizkigu gaur egun ia barri gehienak. Hor dago hain zuzen be boterea, informazio iturrietan. Komunikabideei esker jakin genituen, besteak beste, paraolinpikoetako berriak. Ez beharbada gura beste. Lan horretan fin-fin aritu zen **Pedro Mari Azkargorta** Australia aldean. Ordenadore aurrean jarri eta euskal kirolarien notizi guztiak bidali zizkigun. **Joseba Larrinaga** be han inguruan ibili zen, burubelarri entrenatzen. Lastima telebistaz maratoia ikusterik ez genuena izan. Hauek be beste kirolari guztiek moduko meritua dute, baina medioetan ematen zaien tratamendua ez da berdina. Hala ta be, Josebak handik etorri ondoren, medioen munduan jarraituko du. Aretxagazetan, Goitbn eta gaur gauean Sorginen Laratza programan ikusiko dugu. Klaudio Landarekin aterako ete da beharbada? Duda barik, gure atleta famoso bihurtzen ari zaigu.

Programa berean beste atxabaltar bat ikustera ere ohitu gara dagoeneko. **Itxaro Zubillaga**k astelehenero futbolaren inguruko kontuak ekartzen dizkigu. Horrek bai suertea, futbolari ezagunak elkarrizketatzen ditu. Neuk ere gurako nuke bere lekuan egotea.

Telebistan agertu ziren beste batzuk **Ibon Errasti** eta Anotegi bere bikotea izan ziren. Gipuzkoako Open-eko finala jokatu zuten eta telebistaz bota zen pilota partidua. Bikoteak galdu egin zuen Esnal-Laskurainen aurka 18-22. Partidua luzea eta gogorra izan zen, eta azkenik, bigarren postuaz konformatu behar izan zuten.

Bestelako medioetan ere badugu hainbat atxabaltarri entzuteko aukera. Urrun joan barik Arrasate irratian sarri-sarri urteten da herritarren bat. Entzun gura baduzue, 107.7an aurkituko dituzue. Orain, gainera, eguneko 24 orduetan emitituko du. Ez da erronka makala!

Datorren domekan korrituko den Behobia-Donostia ere ez da erronka makala izango batzuentzat. Hogeita hemeretzi atxabaltar daude guztira izen emanda. Aber medioren batean agertzen diren, telebistan, irratian edo aldizkarian. Seguru baietz!

## LIBURUTEGIKO TXOKOA

LIBURUTEGIKO LIBURU BERRIEN ZERRENDA

8 urtetik aurrera
- Maisu berria : Grigor eta erlearen ipuinak/ Juan Kruz Igerabide
- Gloria / Jose Ignazio Ansorena

10 urtetik aurrera
- Kris y los misterios de la vida / Enriqueta Antolín
- El club de las chicas Róbinson / Ana Rossetti
- El verano de Lucky / Ángeles Caso

12 urtetik aurrera
- Bruno y la casa del espejo / Ricardo Gómez
- Regreso a las cavernas / Justin Denzel
- El espíritu del Bolshoi / Carlos Puerto

Nobelak
- Agur, Euzkadi / Juan Luis Zabala
- La noche del cazador / Davis Grubb
- Los dominios del lobo / Javier Marías
- Celos : novela para tres máquinas de fax y una grabadora / Esther Vilar
- Aquellas costas de Inglaterra / Blanca Sanz
- Una música constante / Vikram Seth
- Los ojos del tuareg / Alberto Vázquez-Figueroa
- La chica que amaba a Tom Gordon / Stephen King
- Retrato en sepia / Isabel Allende
- La voz del violín / Andrea Camilleri

Kontsulta
- Euskal Herria krisian / Joxe Azurmendi
- Sexulapikoa : hacia la sexualidad del siglo XXI / Luis Elberdin
- En tu casa o en la mía : todo lo que los jóvenes quieren saber para un sexo sin duda / Lorena Berdún
- La HISTORIA de ETA / Antonio Elorza (coordinador) ; José María Garmendia, Gurutz Jáuregui, Florencio Domínguez Iribarren
- Gure mendea: ehun urte Euskal kulturan / Iñigo Aranbarri
- Historia de Navarra, el Estado Vasco / Mikel Sorauren

Joseba Lopez de Armentia

## EUSKARA ZUZENTZEN

Hona hemen gaurko akatsa.

- Zeatik ez zoiez aurten Behobia-Donostia lasterketara?
- Zeatik ez dot biher beste entrenau (txarto).
- Biher beste ez dotelako entrenau (ondo).



## Denetik

Betaurreko graduatu batzuk aurkitu ziren Haizea taberna ondoan. Udaletxera zuzendu.

---

Opel Corsa SS-BB salgai. 15.000 km. Berri berria. 943 79 27 30.

---

Atiko bat erosiko nuke hemen inguruan. Tel.: 670053273.

---

Opel Astra GSI 115 cv salgai. 1993. urtekoa. Txuria. Tel.: 943 77 09 23. (Roberto).

---

Piragua salgai. Whip, it. Arraunekin, "cubrebañera" eta bi globorekin. Merke. Tel.: 943 79 78 36.

---

Voswagen Polo diesel 1.9 salgai. SS-AX matrikuladuna. Tel.: 609541613.

---

Ford Sierra 2000 kotxea salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 68 63.

---

Kawasaky Volcan 800 motorra salgai. 900.000 pta. Tel.: 943 77 08 69.

---

Gaixotasun arazoengatik negozioaz ezin garelako arduratu, martxan dagoen denda alokatzen da Aretxabaletan. Tel.: 626 379 326.

---

# Iragarkiak

**Sail honetan jartzen diren iragarkiak DOAN dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Aretxagazetak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik.**

**Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 943 79 86 21 telefonora edo 943 77 18 54 erantzungailura.**

Bigarren eskuko ordenagailu portatila erosiko nuke. Tel.: 943 79 77 85.

---

Trial motorra salgai. 250 $m^3$. 125.000 pta. Tel.: 943 79 78 36.

---

Roller karabana salgai. Aurreko estalkiarekin. Tel.: 943 79 46 84.

---

Ford Courier furgoneta salgai. 1800 diesel, combi. Tel.: 943 71 46 79.

---

Giltza batzuk galdu dira. Tel.: 943 79 37 98.

---

Gitarra bat salgai. Tel.: 943 79 37 98.

---

## Etxebizitza

Andra Mari auzoan garajea salgai. Tel.: 943 79 74 61.

---

Pisua salgai Aretxabaletan. Andra Mari auzoan. 943 77 13 02.

---

Errekabarren kalean bi lokal alokagai, 34 $m^2$takoa bata, eta 36koa bestea. Tel.: 943 79 20 48 /943 77 14 11.

---

Pisua salgai Arronizen (Nafarroa). Lizarratik 15 kmtara. 90 $m^2$ + 40 $m^2$ baxua. Egoera ona du eta prezio egokia. Tel.: 941 43 10 19.

---

Etxebizitza salgai Aretxabaletan. Otalora, 10 2 ezk. Tel.: 943 71 46 57.

---

Etxebizitza salgai Aretxabaletan. Tel.: 943 79 00 28.

---

Etxebizitza alokagai Aretxabaletan. Loramendi aldean. Tel.: 943 79 56 19.

---

Aretxabaleta zentruan 94 m2 etxebizitza salgai. Eguzki begia eta egoera onean, hiru logela, egongela, sukaldea eta bi komun. Kalefazioa eta ganbara. Tel.: 943 79 77 30.

---

Etxeko altzariak salgai, (umeen gela, salako altzariak, sofa...). Bi urte dituzte. Oso merke, guztia 200.000 ptan. Tel.: 943 79 38 16. (Idoia).

---

Etxea salgai Aretxabaletan. Tel.: 649930732.

---

Etxe bat alokatu nahi dut Aretxabaletan. Tel.: 943 77 19 81.

---

Express akeitegia




Santa Kurtz, 16 ☎ 943 79 23 43
zure gustoko giroa

ARQUERO
CONSTRULAN S.L.
ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK
Tel.: 943 79 01 51
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria: *Lyonel Arquero*
Dekorazioa: *Soraya Arquero*

GEMES
• Depilazio elektrikoa
• Makilaia permanentea
• Kutisaren garbiketa
Durana, 40-2 ☎ 943 79 99 18
Aretxabaleta

## Lana

Alemaneko klase partikularrak ematen ditut. Aleman filologian lizentziatua naiz. Tel.: 943 79 57 03.

---

Arrasateko arrandegi batean emakume euskalduna behar da goizez lan egiteko. Gidabaimena beharrezkoa da. Tel.: 943 71 48 61/946820373.

---

Neska eta mutila lan mota desberdinak egiteko gertu daude. Tel.: 600600531.

---

Atzerritar mutil batek lana bilatzen du. Tel.: 686662271.

---

Bi ume zaintzeko pertsona bat behar da. Tel.: 943 77 00 32.

---

Bigarren batxilergoko ikasle batek frantseseko klaseak hartuko lituzke. Tel.: 943 79 63 61.

---

Ileapaindegi baterako ileapaintzailea behar da. Tel.: 943 79 80 90.

---

## Lan deialdi publikoak

Ingurumen zerbitzuaren arduraduna. Deba Goieneko mankomunitatea. GAOn 2000/10/03. Epea: azaroaren 13a.

---

Antzokiko arduraduna. Donostiako Udalaren kultur patronatua. GAOn 2000/10/17. Epea: azaroaren 20a.

---

Haur liburutegian arduradun lanpostua. Oñatiko Udala. GAOn 2000/10/17. Epea: azaroaren 13a.

---

Artxibari/liburuzaina. Bilboko Udala. BAOn 2000/09/19. Epea: azaroaren 14a.

---

**Langai**
Euskal Lan Zerbitzua

**MUNTATZAILEA.** Arrasate.
Erref.: 40232/3

**MUNTATZAILE MEKANIKOA.** Arabako lautada.
Erref.: 40208/4

**PRODUKTU FINANTZIEROEN KOMERTZIAL BI.** Deba Goiena.
Erref.: 39462/1

**BIDEETAKO INGENIARIA.** Vitoria/Gasteiz.
Erref.: 38503/5

**TARJETEN KOMERTZIALA.** Arabako lautada.
Erref.: 39307/1

**DISEINATZAILEA.** Legutiano.
Erref.: 37476/3

**2 MEZULARIA/TRANSPORTISTA.** Durangaldea.
Erref.: 40879/2

**PEOIA.** Durangaldea.
Erref.: 39672/6

Langaiko lanpostu hauetako bat interesatuz gero,ondorengo telefonoetara dei daiteke:
Bastida akademia: Aintzane Gallastegi 943 79 35 33
Deba Goieneko Mankomunitatea: Alicia Martinez 943 79 30 90
Arrasateko Udala: Marga Garmendia 943 79 09 00

Zenbaki
- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza
Basabe poligonoa, F-O-10 (2. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68

AMETS TABERNA
Iparragirre, 4
Tel: 943 79 01 29
Aretxabaleta

MAITE AGUILERA
logopedia bulegoa
- Ahotsaren berreziketa
- Ahoskatzeko arazoak
- Hitzmoteltasuna
- Mintzamena eta hizkuntza atzerapena
- Afasiak
Tel.: 943 71 50 70 / 658204076
Dorleta, 10 4 ezk ESKORIATZA

TABERNA
ARLUTZ
MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TFNOA.: 79 32 34

BEIRALAN
- Komunerako altzari eta manparak
- Ispiludun armairu aurrealdeak
- Beirate artistikoak
- Salarako mahaiak
KRISTALDEGIA
Herriko plaza, 8 behea
☎ 943 79 81 78 ARETXABALETA

## AZAROA

### 10 EGUAKOTXA

**IPUIN KONTAKETA**
Pello Añorga umeentzako ipuin kontalaria 18:30ean ludotekan.

**DANTZAKO BATZARRA**
Nagusien euskal dantza taldea osatu nahi dutenek, batzarra izango dute arratsaldeko 19:00etan Loramendi dantza lokalean.

### 11 ZAPATUA

**SAN MILLANAK ARKARAZON**
13:00etan meza santua eta ondoren trikitilariak. Eguerdiko 14:30ean auzo bazkaria bertsolari eta trikitilariekin. Arratsaldeko 17:30ean auzoko bolo eta mus txapelketa.

### 12 DOMEKA

**BEHOBIA DONOSTIA**
Behobia Donostia lasterketa popularrera autobusez joateko asmoa dutenak, goizeko 8etan irtego dira Azbetik.

**SAN MILLANAK ARKARAZON**
Eguerdiko 12:30ean auzoko hildakoen alde meza santua. Ondoren luntxa izango da.

**ARTISAU FERIA LEINTZ GATZAGAN**
San Millan egunez artisauen feria egongo da Leintz Gatzagako pilotalekuan. Egun horretan txondor bat jarriko da martxan.

### 16 EGUENA

**DIAPORAMA**
Jon Arretxek Amazoniaren inguruko diaporama eskainiko du 19:00etan udaletxe zaharrean.

### 18 ZAPATUA

**KINTO AFARIA**
78an jaiotakoen kinto afaria. Goiaranen izango da. Izen ematea Arlutzen azaroaren 15a baino lehen.

### 19 DOMEKA

**FUTBOLIN TXAPELKETA**
Izotz tabernak futbolin txapelketa antolatu du. Arratsaldeko 17:00etatik aurrera Izotz tabernan.

### 20 ASTELEHENA

**HITZALDI ERAKUSKETA**
Juan Antonio Urbeltz eta Ane Albisuren hitzaldi erakusketa: garai bateko euskal jantziak. 19:30ean udaletxe zaharrean

### 24 EGUAKOTXA

**KONTZERTUA**
Xabier Amuriza eta Mikel Ducau-ren kontzertua: Bizkaiko kopla zaharrak. 22:30ean udaletxe zaharrean.

## TXAPELKETAK

**FUTBOLIN TXAPELKETA**
Izotz tabernak futbolin txapelketa antolatu du. Edozeinek har dezake parte eta izen ematea egunean bertan egin behar da. Sari garrantzitsuak daude: 1.- 25.000 pta, 2.- 10.000 pta eta 3.- 5.000 pta. Azaroaren 19an arratsaldeko 17:00etatik aurrera Izotz tabernan izango da.

## LEHIAKETAK

**XIV. ARRASATE LEHIAKETAK** AED elkarteak hainbat lehiaketa antolatu ditu: ipuina, poesia, komikia, bertso paperak, euskalki-grabazioa eta irrati erreportajea. Lehiaketan Leintz Bailaran bizi diren 17 urtetik beherakoek har dezakete parte, baina baita adin horretatik gora Deba Goienan bizi direnek ere. Lanak 2001eko otsailaren 5a baino lehen AED elkartera zuzendu behar dira. XIV. Arrasate lehiaketak/Pablo Uranga, 4 behea/20500 ARRASATE.




Mikel Arroiabe

## Zorion agurrak



**Aroa Nuñez**
Azaroak 4
Guraso eta ahizpa Leizuriren partetik zorionak.



**Maider Conde**
Azaroak 9
Zure lehenengo urtebetetzean familiaren partetik. Zorionak.



**Silvi Carrancio**
Azaroak 11
Seme guztien partetik zorionak, eta beste horrenbeste bete ditzazula.



**Urko Nuñez**
Azaroak 13
Maitasunez bere gurasoen eta Jonás anaiaren partetik zorionak.



**Arantxa Herruzo**
Azaroak 13
Etxekoen partetik zorionak eta muxu haundi bat.



**Mila Eraña**
Azaroak 21
Zure ilobatxoen partetik zorionak.



**Aitor Iturbe**
Azaroak 20
Zure koadrilakoen partetik zorionak eta ondo ondo pasa-tu eguna.



**Conrado Eraña**
Azaroak 26
Emaztea eta semealaben partetik zorionak.

Atal honetan zorion agurrik argitaratu nahi izanez gero, Aretxagazetara zuzendu. (Durana, 11 2. solairua).

## Txistuak • Txaloak

Gure herriaren alde lan egiteko ilusioa eta esperantza falta dira. Espainiatik inoiz baino gogorrago eraso egiten digute: notiziak manipulatu eta ekintza kulturalak kriminalizatzen dituzte, euskalduna den guztia satanizatzen dute, ez digute herri bat izaten uzten eta hemen, jarraitzen dugu elkarri belarrondokoak ematen.
Nori kaltetu dio Mapfre bulegoa erretzeak? atxabaltar bati eta bizilagun guztioi, beste inori ez. Hori bai, espainiar kutsua duten komunikabideek etekin ona atera dute bandalismo ekintza horretatik. **Txistu** berria ohera joan aurretik zer egin ez dakitenentzat.



## Jaiotakoak

**Liher Oyarbide Arrese**
Urriaren 24an.

**Nicole Kruse Noda**
Urriaren 28an.

**Leire Elizondo Aranburu**
Azaroaren 1ean.

| Aretxabaleta | |
|---|---|
| • Almen | 943 71 49 07 |
| • Aretxagazeta | 943 79 86 21 |
| • Telebista | 943 79 86 21 |
| • Basotxo | 943 77 09 81 |
| • Euskaltegia | 943 79 21 68 |
| • Gizarte-Laguntzailea | 943 79 10 00 |
| • Hezibide Elkartea | 934 79 31 32 |
| • Industrialdea | 943 79 62 80 |
| • Institutua | 943 79 79 00 |
| • Kiroletxea | 943 71 26 28 |
| • Kultur-Etxea | 943 71 10 27 |
| • Kurtzebarri Eskola | 943 79 00 49 |
| • Kurtzebarri B.H.I. | 943 79 57 40 |
| • Liburutegia | 943 79 10 00 |
| • Loramendi E.E. | 943 77 09 70 |
| • Ludoteka | 943 79 05 81 |
| • Mankomunitatea | 943 79 30 90 |
| • Murrukixo M.E. | 943 79 93 74 |
| • Musika Eskola | 943 79 36 50 |
| • Ortzadar | 943 79 01 84 |
| • Osasun zentroa | 943 79 74 58 |
| • Otalora | 943 71 24 06 |
| • Parrokia (Bulegoa) | 943 79 18 42 |
| • Pausoka Haur-Esk. | 943 77 03 77 |
| • Postetxea | 943 79 28 31 |
| • Santa Rita Ikast. | 943 79 17 00 |
| • Saretxo | 943 71 26 56 |
| • Taxi Geltokia | 943 79 22 33 |
| • Udal Bulegoak | 943 79 10 00 |
| • Udaltzaingoa | 943 79 10 52 |
| • Urats Gain | 943 79 99 11 |
| **Udaltzaingoa** | |
| • Arrasate | 943 79 14 39 |
| • Bergara | 943 77 91 06 |
| • Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| • Oñati | 943 78 04 11 |
| **Larrialdiak** | |
| • SOS Deiak | 112 |
| • Eskualde-Ospitalea | 943 03 53 00 |
| • Ertzaintza | 943 79 71 99 |
| • Gurutze-Gorria | 943 76 55 76 |
| • Larrialdiak | 943 46 11 11 |
| • Suhiltzaileak (Oñati) | 943 78 28 00 |
| **Garraioak** | |
| • Pesa | 902 10 12 10 |
| • Renfe (Gasteiz) | 945 23 02 02 |
| • Renfe (Zumarraga) | 943 72 15 15 |



# Marianistetako istorioak

Argazkian Eskoriatzako marianista eskolako lehen promozioa osatu zuen taldea dugu. Erretratu hau atera zutenean, hamazazpi bat urte izango zituzten Arrasate, Eskoriatzako eta Aretxabaletako ikasle hauek. 69 eta 70. ikasturtea zen, talde horrek marianistetan egingo zuen azkenengoa, izan ere, urte horretan laugarren batxilergoan zeuden.

Gaur egun ez da edifizio haren aztarnarik gelditzen, baina lorategi ederrak zituela gogoan dute bertako ikasle izan zirenek. Lorategian putzu haundi bat ere bazegoen. Bertan makina bat zapaburu harrapatutakoa izango da ikasle bat baino gehiago.

Goian ezkerretik eskumara: **Patxi Lizarralde, Gerardo Armendariz, Pablo Txintxurreta, Benito Errasti, Jose Antonio Leibar, Jose Luis Zabaleta, Faustino Madinabeitia, Luis Anduaga eta Jose Mari Lete.**

**Erdian: Jesus Mari Errasti, Javier Larrabe, Gregorio Vaz, Paco Alvarez, J. M. Aranburu, J. M. Pagaldai, Luis Galdos, Felix Iriarte eta Jose Mari Gorroño.**

**Behean: Prudencio Zumalde, Felix Urrezola, Juan Carlos Uribesalgo, Juan Jose Orobengoa, Jose Antonio Lete, Jose Ramon Urkia, Jose Angel Arkauz, Jose Luis Arkauz, Francisco Javier Maiztegi.**

Argazkia: Eli Izagirre.
Informazioa: Eli Izagirre eta Pablo Txintxurreta.

LASAGABASTER
LASAGABASTER
Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

# TABERNA eta JATETXEEN GIDA

## Zaraia taberna

MANTEKA ANAIAK

*Goizeko 5,30etatik zure zerbitzura*

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88 95

## Haizea taberna



Mitarte, z/g • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 60

## Artano taberna

Herriko plazan
ARTANO

*Girorik onena*

Herriko plaza, 3 • 943 79 62 75

## Gurea taberna

Jatetxea eta taberna
GUREA

*Eguneko menuak*

Durana kalea • 943 79 20 64

## Izotz taberna

*Zure gustoko giroa*

IZOTZ TABERNA

Mitarte, 16 • 943 79 73 65

## Arlutz taberna

TABERNA
ARLUTZ
MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TFNOA.: 79 32 34

*Gustoko musika*

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 32 34

## Ezkutu taberna




Mitarte, 9 • ☎ 943 79 92 01

## Dorleta taberna

**Dorleta**

*Bezeroen zerbitzura*

Loramendi 8 • ARETXABALETA
☎ 943 79 94 15

## Mendiola erretegia

ESKORIATZA
Tfno 714345
ERRETEGIA
MENDIOLA

*Bazkariak eta afariak*

*Astelehenetan itxita*

Mendiola auzoa • Eskoriatza

## Baster alde jatetxea



Sasoiko jakiak giro onenean

Galartza auzoa
✆ 943 79 24 58
ARETXABALETA

## Matikua jatetxea




Azatza auzoa ◆ Tfnoa: 943 79 16 68

## Mitartegarai

Mitartegarai
Jatetxea

Arientza auzoa
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 17 51



## Josu harategia/taberna

Josu harategia taberna

- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

Mitarte, 1
Tel.: 943 77 03 08



## Taberna Berri




Durana, 26 • ARETXABALETA
☎ 943 79 20 67

## Urbaltz taberna

URBALTZ taberna

URBALTZ
TABERNA

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA

Laster...



...harrituko zaitu.

MUGARRI

Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE
Tel.: 943 79 07 54 • jefeventas@mugarri.es

Ford